

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak gastuak izango ditu, hau da, produktu edo zerbitzuak egiteko eta saltzeko diru-irteerak. Kostuak bi motatan banatzen ditugu: hasierako kostuak eta hilabeteko kostuak. Hilabeteko kostuen barruan bereizten dira kostu finkoak eta kostu aldakorak.

Hasierako kostuak

Hasierako kostuak gure enpresa martxan jartzeko lehen gastuak dira, hau da, hasieran ordaindu behar ditugun gauzak. Proiektua hasteko eta ile-lehorgailua egiteko, makinak, tresnak, materialak eta piezak behar ditugu. Gainera, publizitatea egingo dugu jendeak gure produktua ezagutu dezan, eta webgunea sortuko dugu, online egoteko eta bezeroek informazioa eta eskaerak egin ahal izateko.



HASIERAKO KOSTUAK		
Gastu kontzeptua	Kostua (€)	Noiz ordaintzen da
Makina eta tresnak	4.000€	Hasieran
Materialak eta piezak	3.000€	Hasieran
Webgunea (sorrera eta diseinua)	1.500€	Hasieran
Garraioa (Correos, Girtoka)	4.100€	Hasieran
Guztira	12.600€	

Hasierako kostuei begira, 12.600€ jarriko ditugu. Makina eta tresnetan 4.000€ jarri beharko ditugu, materialetan eta piezetan 3.000€. Horrez gain, webgune bat egin nahi dugu eta horrek 1.500€-ko prezioa edukiko du. Bukatzeko, garraioa

beharrezkoa da gure produktua bezero desberdinentzat leku desberdinetan iristeko, horrek, 4.100€-ko kostua izango du.



Makina eta tresnak behin erosi ondoren, ez dira hilero berriz ordaindu behar; baina materialak eta publizitatea hilero erabiliko dira, produktua gehiago saltzen badugu. Horrela, gure enpresa martxan jartzeko behar dugun dirua argi eta ondo prestatuta dago.

Kostu aldakorrak

Kostu aldakorrak gure enpresako gastuak dira, baina produktua egiten dugun neurrian aldatzen direnak. Hau da, ekoizten dugun kopuruaren eta saltzen dugunaren arabera handitu edo txikitu daitezke. Adibidez, ile-lehorgailu gehiago egin nahi baditugu, gehiago gastatuko dugu materialetan eta piezetan; produktua bezeroengana eramateko garraioak ere gehiago kostatuko du. Publizitatea ere aldakorra da: telebistan edo sare sozialetan gehiago iragarki jartzen badugu, gastua handiagoa izango da.

KOSTU ALDAKORRAK	
Gastu kontzeptua	Kostua (€)
Garraioaren kostua	5.000€
Telebistako iragarkiak	500€
Sare sozialetako iragarkiak	300€
Salmenta eta banaketa	150€
Materialak eta piezak	400€
Zergak	121€
Guztira:	6.471€

Hurrengo taulan agertzen dira gure kostu aldakorrak eta zenbatekoak: ekoizpena (materialak) 400€, garraioa 5.000€, telebistako iragarkiak 500€, sare sozialetako iragarkiak 300€, salmenta eta banaketa 150€, eta askenean zergak 121€, hau guztira batzen badugu 6,471€ kostua emante du.



Adibidez, gure lagun baten tailerrean piezak egiten baditugu, gehiago ekoizten badugu gehiago kobratuko digu. Halaber, Facebook edo Instagramen publizitatea gehiago egin nahi badugu, gastua handituko da. Horrela, kostu aldakorrak hilero edo produktua saltzen dugun neurrian aldatzen joango dira.

Kostu finkoak

Kostu finkoak gure enpresako gastuak dira, baina hilero beti berdinak dira. Hau da, zenbat ekoizten edo saltzen dugun ez du eragiten. Adibidez, langileen soldatak, energia, zergak eta webgunearen mantentzea hemen sartzen dira.

KOSTU FINKOAK	
Gastu kontzeptua	Kostua (€)
Langileen soldata	1.800€
Energiaren gastua	150€
Zergak	200€
Webgunearen mantentzea eta hosting	50€
Teknologia hobetzeko gastu txikiak	100€



Langileen soldatak hiru motatakoak dira: produzioa, bezeroen arretakoak eta administrazioa. Produzioko langileak makinak erabiltzen dituzte eta produktuak egiten; haien soldatak 2.500€ dira hilero. Bezeroen arretakoak bezeroekin hitz egiten dute, eskaerak jasotzen eta arazoak konpontzen; haien soldatak 1.500€ dira. Administrazioko langileak enpresa kudeatzen dute, dokumentuak eta dirua zaintzen; haien soldatak 1.000€ dira.

Beste gastu finko batzuk energia (150€), zergak (200€), webgunea mantentzea eta hosting (50€), eta teknologia hobetzeko gastu txikiak (100€) dira. Guztira 3.000€ dira hilero. Energia, interneta eta weba beti ordaindu behar dira, eta langileek soldatak jasotzen dituzte hilero. Horrela, hilero zenbat gastatuko dugun dakigu eta dirua ondo planifikatu dezakegu.

Gure enpresak hasieran gastu batzuk izango ditu (makinak, materialak, publizitatea, webgunea), eta horiek hasieran bakarrik ordaindu behar dira. Hilero, aldiz, kostu finkoak eta aldakorrak izango ditugu, eta horiek produkzioaren eta salmenten arabera aldatuko dira. Horrela, gure gastuak ondo planifikatu ditzakegu eta dirua kontu handiz erabiliko dugu, enpresa aurrera eramateko eta arrakasta izateko.